

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

608. zkia.

XV. urtea

2007ko martxoaren 30a



Korrika 15

Hemen gaude... Korrika!



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Ezenarro arotzerixia

Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia
3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Javi

Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelal

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055
☎ 943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98
☎ 629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com



UXUE ALBERDI

Gaztetan iraultzailea ez denak ez du bihotzik; heldutan hala denak ez du bururik. Ez zait gustatzen esaldi hori, gaztea naizelako, seguruena. Beti izan naiz egoskorra, ameslaria, sentibera, jenio bizikoa, pasionala... 23 urte hauetan. Eta beti nekatu izan nau pasibotasunak, zain dagoenak, beldurtiak, artaldeko ardi zuriak, hiru hostotako hirustak.

Milakabilaka ekimenari buruzko eztabaida izan genuen etxean. Generazionala. Ogi apurrez beteriko mantelaren inguruan izaten diren horietakoa. "Nekatuta gaude baina", "Nor dago horren atzean, betikoa?" ziren zaharrenen esaldiak. "Ekimen hori ez da inora iritsiko" ebaki zuen batek. Negarrez joan nintzen komunera. Inpotentzia. Nor konbentzituko dut nire idealez, nire borroka-az neure gurasoek ere horietan konfiantza apurrik ez badute? "Adinaren kontuak", esan zidan lagun batek, "lasai".

Baina atzo beste eztabaida bat izan genuen: amak zioen askotan hobe dela arrazioa ez duenari arrazioa ematea, armoniaren izenean. Bere amaz ari zen, gure amamaz. Aitak, ezin ziola ez duenari arrazoirik eman. Adin kontua? Borroka batzuetaz ez gara sekula nekatzen...

Jende askok amore ematen du, baina barru-barruan min egiten dio iraultzaile izaten segi ezinak.

Txino, zu gaztetasunak eta heldutasun petoak elkarri eskua ematen dioten adin horretan zaude... Bihotza? Burua?

ZOZOAK BELEARI...



IMANOL LARRAÑAGA

Burua bihotzari eusten eta bihotza buruari tiraka, Uxue; egoskor biak, aurrea zeinek hartuko deman. Esna nagoenean egiten ditudan ametsetan sinesten dut, baina kolore zuriko artilea dudala aitortu behar dizut. Ni ere, bere sasoiaren, Laboraletik pasa nintzen etxean sartu aurretik; Euskalteleko mitxelekotea inguruan izaten dut gehienetan; eta autoa behar baino gehiagotan hartzen dut.

"Gazte gera gazte eta ez gaude konforme, mundu garbiago bat bizi nahi genduke", kantatzen zuen Lurdes Iriondo zenak. 18 urte inguru nituen kantaren letrari errepertatu nionean, eta, nik ere, gaztea ezin dela konforme egon pentsatu nuen; gazte bakoitzaren barruan iraultzaile txiki bat topatu behar genuela. Baina denborak erakutsi dit, guk munduari buelta eman beharrean, munduak jarri gaituela gu hankaz gora.

Hala ere, izan dira ilunpean argia piztu dutenak. Intsumisoei, adibidez, ez diegu sekula behar beste eskertuko egin zutena. Soldaduska amets gaiztoen zakuan gorde dago intsumisoei esker. Eta *okupak*? Ez naiz ni hasiko hutsik dauden etxeak okupatzeko esaten, baina hauen espiritua zabalduagoa balego, akaso, ez genuke gure bizimodua hainbeste hipotekatuko.

Uxue, ez nekatu gurasoak eta helduok konbentzitzen; gorde indarrak eta ilusioak zure adin bueltakoekin konpartitzeko. Behar bada, zuok lortuko duzue.

«Borroka
batzuetaz
ez gara sekula
nekatzen»

UXUE

«Beharbada,
zuok
lortuko
duzue»

IMANOL



JENDE GEHIENA, PENTSATZEARI EKIN BAINO LEHEN
HIL ERE EGINGO LITZATEKE, ETA HORIXE EGITEN DUTE ASKOK



Bertrand Russell

Elgoibarko euskara

Martitzenian Elgoibarko euskara liburuaren aurkezpenian egon nitzan. Kultur Etxeko hitzaldi gelia lepo zagan; jendia tente eta giro berua. Zazpirak eta hamar inguru izango ziran aurkezpena hasi zenerako. Hasieria hunkigarria izan zan: hamabi lagun elgoibartarrez berbetan ikusi eta entzun genittuan pantalla batian. Edadekuak danak; batzuk gure artetik alde egindakua, baiña, momentu batian, danak berriz ere gure artera bueltatu zirala ematen zaban. Eta gu ixilik, gure aurrekuek zer eta zelan esaten zeben entzuten.

“Aurriak erakusten deu atziak nola dantzatu” dio esaera zahar batek. Aurkezpenera jun giñanok, 12 lagun hauek mingaiña zelan dantzaten zeban begira egon giñan. Akaso ez dogu hauek egitten deben moduan sekula egingo, baiña, besterik ezian, gustura egon giñan haiei begira eta entzuten. Eta, kontuz, ez dot hau esaten aurrekua beti hobia izan dala pentsatzen dotelako; ez, Elgoibarko berbetia ez jata gustatzen gure aurrekuen dalako, lehengua delako; Elgoibarko euskaria guria dalako gustatzen jata. Badakit etorkizunera begira jarri bihar generala, eta horregaitik uste dot hurrengo lana Elgoibarko euskaria herri-

xan zabaltzia izan bihar dala. Lan haundia egin debe Jesus Mari Makazagak eta beste batzuk gure herriko euskaria jasotzeko; baiña, errezelua daukat, egingakua baiña haundixagua dala egitteke geratzen dana. Ahalegindu, eta ikusiko dogu noraiño allatzen geran. Zorionak eta milla esker lan honetan parte hartu dozueno.

G.L.

Ynosaketarik ez!!

Euskal Herriaren historian inoiz planteatu den proiektu txikitzaile handiena martxan jarri den arren, euskal herritarroi ez digute inolako informaziorik ezta parte hartzeko aukerarik eman.

Ezkutuan, isilean eta gezurren bitartez beraien poltsikoak betetzea dute helburu, amalurraren ordainetan, betiko diruzaleek.

AHTak sortuko dituen kalte ekologiko, sozial eta ekonomikoak ezagutu nahi dituen orok AHTaren Aurkako Asanbladak duen orrialdean sartzea besterik ez du. Eusko Jaurlaritzak darabilen iruzurra eta manipulazioa argi eta garbi ikusiko dituelarik. Bertan aurkituko ditu kostu ekonomiko, energia kontsumoaren, trafikoan

erango dituen aldaketan, kutsaduraren eta suntsituko dituzten ingurune naturalen inguruko informazioa, besteak beste. Lotsagarria da, gizarteari bizkarra emanaz lan hauei hasiera ematea. Horren adibide, Xirika hilabetekariari Eusko Jaurlaritzako bozeramaile batek esan zizkionak: “parte hartzea ezin daiteke erabakiaren aurka joan”. Esaldi adierazgarria benetan. Erabakia hartuta bada, ez dago parte hartzerik emakumea! Erabakiak parte hartzearen bitartez hartu behar dira eta ez alderantziz!! Gai batzuetan herriari kontsultatzea eskatzen duten bitartean beraien beraien negozioa inori ezer galdetu gabe egin nahi dute amalurraren eta gizartearen ongizatearen kontura, hurrengo belaunaldien etorkizuna baldintzatuz. Hipokrita hutsak.

Hala ere, orain da garaia lan egiteko eta AHTaren aurka gaudela adierazteko. Italian adibidez, lotu zuten AHTa gelditzea. Ez dugu AHT berdea edo urdina izango den aukeratu nahi! Ez dugu AHTrik nahi!!

AHTrik EZ!!

ELGOIBARKO AHTAREN AURKAKO ASANBLADA

OHARRA

Iritsi dira Aste Santuko oporrak BARREnera, ondorioz, datorren ostiralean ez da alerik izango. Hurrengo alea apirilaren 13an jasoko duzue.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR EUSKARIA

ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriando **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertru **TIRADA** 4.630 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855



TXALOKAK

• Herri Eskolako Guraso taldeak "elgoibar bi erroberatan" irteeran parte hartu zutenak txalotu nahi dituzte: "Eskerrik asko joan zen domekan bizikleta hartu eta San Lorentzora etorri ziren ikasle eta guraso guztiak. Partaidetza oso altua izan zen eta oso ondo pasatu genuen, giro bikaina sortu zen denon artean. Honelako erantzunak datorren urtean berriro ere antolatzeko indarra ematen digu".

• Txalo bero bat Korrikan parte hartu zuten herritar guztiak: "Politika, zoragarria izan zen domeka eguerdian Elgoibarko kaleetan piztu zen giroa. Plaza Handia jendez gainezka eta kaleak txiki gelditu ziren. Elgoibartar mordoak lekukoaren atzetik korrika ikusteak emozionatu egin niduen, benetan. Jende desberdina; ume, gazte, heldu eta zahar denak bat eginda euskararen alde. Antolatzailerak eta bertan parte hartu zuten guztientzako txalo bero bat". Bestalde, Ikastolako ikasle batzuk Korrika Txikian parte hartu zuten guztiak txalotu nahi dituzte" partaidetza handia izan zen eta eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, polita atera zen Korrika Txikia".



• Txalo bat Udalari Plaza Txiki inguruan denbora mugatzeko OTA jartzeagatik: "Plaza Txiki ingurua oso ondo gelditu da. Lurra margotuta eta asfaltatuta itxura askoz hobea dauka, ordenatua dagoela ematen du. Gainera, auto gutxiago ibiltzen dela dirudi, ingurunea lasaitu egin da. Hurrengo pausua, Kultur Etxe aurreko aparkaleku inprobisatu horiek kentzea izan beharko luke, parke polita geldituko litzatekeela iruditzen zait. Alde zaharra oinezko bihurtzen denean, askoz lasaiago ibiliko gara kaleetan zehar, orain ia ezinezkoa da-eta".



KEXAK

• San Bartolome eta Errosario arteko kalean oso usain txarra dago: "Azken aldian txiza usaina egoten da Errosario eta San Bartolome arteko kalean. Akaso karkabako usaina izango da, baina batzutan badirudi, jendeak bertan egiten duela txiza. Dagokionari, ingurune hau sarritan garbitzeko eskatuko nioke, alde zaharrean bizi direnentzat eta gainontzekoentzat ere, gainantziatsua da".

Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNOREN *Luma*

Udaberri hotza

Negu giroan hasi dugu aurten udaberria. Eta euskararen inguruan ere udaberria hotza izango den susmoa dut. Azpeiti aldeko berriek harritu naute asteotan. "Euskara inposatzen eta gaztelania baztertzen" duelakoan atzera bota du epaile batek euskara normalizatzeko udalak egindako ordenantza. Kale eta plaza izenak euskaraz ematea, eta udal langileek herritarrei euskaraz egitea "agintzen" zuen ordenantzak. Bernardo Atxagak Euskaltzaindian sartzeko hitzaldian oraintsu esan du "Ideologia politikoa baino zerbait gehiago beharko dela gure hizkuntza eta gure kultura aurrera ateratzeko». Larunbatean inoizko argazki hungarriena ikusi nuen euskal egunkari batean: lau lagun ziren, Korrikaren lekukoa eskuan, elurtutako parajea lasterka. Aurrean antolatzaileen furgoneta, atzean Guardia Zibilaren jeep-a. Nafarroan zen. Izan ere Korrikak debekaturik zuen Nafarroan sartzea. Beti pentsatu izan dut indar berezia dutela Nafarroan, Iparraldean, Bilbo inguruko industriaguneetan eta Arabako lautada lehorretan euskara lau haizetara darabiltenek. Lau baino ez dira izaten askotan, baina lau horiek inoizko irudirik hungarriena sortzen dituzte. Oraingo irudiak poztu egin nau tristetu baino gehiago, eta larrosak gogorarazi dizkit. Udaberrian loratzen diren larrosak. Korrikak larrosa usaina du, udaberri usaina, euskara biziarena...

Ainhoa Lendinez

[ZORTZIKO TXIKIAN]



MARIA OIARZABAL

PIPES
DENDAKOA

• **Haurren arropan, udaberri honetarako tendentzia?**

Kolore argiak, eta ohial zein arropa arinak.

• **Txikientzat diseinatzen den arropak nagusientzako egiten denarekin antzekotasunik ba al du?**

Egun, desberdintasun gutxi dago umeen eta helduen arroparen artean. Tendentzia berdinak jarraitzen dira adin bakoitzera egokituta.

• **Zein tonalitate izango dira jaun eta jabe udan?**

Udaro bezala, txuria. Baita, koralina eta kakia ere.

• **Umeen arroparen esparruan eman den berrikuntzarik?**

Eskaintza gero eta zabalagoa da. Dagoeneko arropa etxe guztiek konplementu aukera handia dute eta geroz eta indar handiagoa: oinetakoek, lepokoek...

• **Zein dira haurren arropan falta ezin diren basikoak?**

Umeek jantzi asko behar dute. Bi aipatze aldera, galtzak eta jaka bakero bat.

• **Zer ezaugarri bete behar dituzte txikientzako jantziek?**

Dudarik gabe, kalitatea eta erosotasuna.

• **Ongi konbinatzeak, garrantzitsu izaten jarraitzen al du?**

Estilo informala nagusitzen da, baina, ongi konbinatuta.

• **Inoiz ikusi duzun "potxoladarik" handiena?**

Ezingo nuke bat esan. Mila gauza zoragarri ikusten ditugu.

Urriaren 23an hasi ginen eta...

41.600

bisita
izan ditugu

460

komentario
egin dituzue

165

harpidedun
dauzkagu

256

notizia
eman ditugu

www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

[AKORDATZEN NAIZ]



ITZIAR AJURIA

1924an jaioa

«Eskolia»

Ni kalian jaixotakua naiz. Eskolara juaten ginan, bi urterekin hasi nintzan eskolan. Publiketan lehenengo, Satur maistriakin. 100 ume izaten zittuan gelan. Banko luzietan jarritta egoten ginan danak, harek bai zakala meritua.

Orduko denporan esan nion alkatiari: "inortok merezi badeu omenajja, horrexek merezi dau". Baina berak ez zaban nahi. Zoragarrixa zan maistria.

Ume batzuk oinez ere eskolan ikasi zebe. Errezau, kontuak egin eta pixkat haundixaueri letrak erakusten zetsen. Saturrek bazakixan euskeraz eta gauga

batzuk egitten genduazen euskeraz; errezuak eta beste kontu batzuk. Oso egokixa zan, saladia. Gerora eskola haundira juan ginan, goiko eskolara. Han ere maistra onak eduki nittuan. 1931n, errepublika denporan, eskolako kuruziak kendu egin zittuen. Gure ama oso erlijosua zan eta monjetara eraman ninduan, karidadeko monjetara. Urtebete egin neban han. Gero gerrira hasi zan eta publiketara bueltau nintzan. Nik nahixo naban publiketan ibiltzia. Hautzarua ona euki naban, lagun asko giñan, eta oin ere ondiokan mantentzen diitut gaztetako lagunak.



[GURE BERBAK]

Fonologia (3)

Hitz amaierako aldaketa fonologiko bi ikusiko ditugu gaur. Lehendabizikuan, *-a* eta *-e* bokalak nahastu egitten dire hitz batzuetan, eta *-e* esan biharrizan *-a* esaten dira. Hona adibide batzuk:

<i>lora</i>	<i>laba</i>	<i>landara</i>
<i>andra</i>	<i>(txakur)kuma</i>	<i>bela</i>
<i>ota</i>	<i>emakuma</i>	

Nahiko arau indartsua da Elgoibarren, baiña mendebalderago indar handixagua dau arau honek, han *-a* egitten dan zenbait berbatan ez da-eta hala egitten Elgoibarren (esate baterako, *agura, hoba, suba* ...). Gaurko bigarren aldaketa *-oi / -oe* bikotearena da. Askotan gertatzen da euskara batuan *-oi* bukaera daban berba bat *-oe* egittia Elgoibarko hizkeran:

<i>morroe</i>	<i>milloe</i>	<i>sasoe</i>
<i>batalloe</i>	<i>frontoe</i>	...

Hona bateko eta besteko forma batzuk jasotzen diittuen esaldi batzuk:

*Horrek lorak, danak eskuz ebaten dira...
Oin hori ere ezta egitten.
Baiña hau zela dan landara haundixa,
honek lur gehixo eskatzen jok.
Bata morroe eta bestia kalian.
Eske len, sasoe baten, medikuak-eta bazarri askotara etzeben jun nahi izeten.*

Jesus Mari Makazaga



UDALEKUETAN LAN EGITEKO BEGIRALEAK BEHAR DIRA

- Udaleku irekiak: ekainaren 25etik uztailaren 20ra
- Interesa baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 74 16 26 (Naiara edo Eukene) - E-posta: nagore@elgoibarkoizarra.com
Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte - Ubitarte 4, behea

KORRIKA 15, ELGOIBARREN

KORRIKARI HELDU DIO HERRIAK!

Martxoaren 25ean pasatu zen Korrika Elgoibartik. Puntu-puntu iritsi zen eta Saturixotik Mendaroraino egin zuten korrika herritarrek euskararen alde. Haur, gazte eta zahar saltaka jarri zituen Korrikak. Kaleak txiki gelditu ziren. Ondorengo hiru orrialde hauetan batu ditugu Korrikako irudiak. Eskerak eman nahi dizkiogu Azkue argazki dendari, zenbait argazki berak utzi dizkigu-eta. Aipatu bestalde, guk ateratako argazkiak www.elgoibarren.net webgunean daudela ikusgai.



Haizea Emakume Taldea



IMH, Haur Eskola, Herri Eskola eta B.H. Institutua



Pilar Ikastetxea



Alkorta Brockhaus - LAB



Haritz Euskal Dantza Taldea



Gazte Asanblada



AEK



Elgoibarko Izarra



Udaleko Euskara Batzordea



Euskadiko Kutxa



Ezker Abertzalea



EA



Ezker Batua-Berdeak



Elgoibar Ikastolako langileak



Elgoibar Ikastolako gurasoak



Elgoibar Ikastolako ikasleak



Kimetz Elkartea



Txankakua



Morkaiko M.E.



Etxepe



Altzola



Arno eta ikastola



In leike



Mendaroko Korrika antolatzaileak



MTI



Ospitaleko langileak

Hastear dago Aste Santuko oporraldia.

Zuretzako, zein da Aste Santuko oporraldiaren esanahia?

MARIA DAS DORES

Etxekoandrea

41 urte



“Oporrak dira batez ere, baina nire herrian egiten dira prozesioak eta hara joaten naizenean gustatzen zait ikustea. Erlijio kutsua hor dago eta beti egongo da.”

SANDRA DOS SANTOS

Kautxoko langilea

21 urte



“Oporrak dira, udaberriko oporrak. Deskantsatzeko egunak dira, ez dira opor luzeak baina zerbait egiteko aprobetxatuko dut. Nik ez ditut erlijioarekin lotzen.”

MARIAN EXPOSITO

Etxekoandrea

63 urte



“Oporrak. Gaztetan erlijioarekin lotzen genuen Aste Santua, baina orain deskantsurako egunak dira. Nafarroa aldera joango gara apur bat ibiltzera.”

J. CARLOS RODRIGUEZ

Jubilatua

51 urte



“Oporrak, dudarik gabe. Ni jubilatuta nago eta jai egunak bukatutakoan joango naiz kanpora, Andaluziara joango gara, Sierra de Cazorlara.”

[BAI ala EZ?]

ETAren su-etenak aurrera jarraituko duela uste al duzu?

BAI %82

“Bai, hori da guztion nahia eta gainera, hori da bakerako bidea, ez dago besterik. Bide onetik goaz, ETak ezin du su-etena hautsi. PPKoak desiatzen daude, ezin diegu satisfazio hori eman.”

EZ %18

“Ez. Madrilgo gobernuek ez du adierazi aurrerapauso handirik egiteko borondaterik. ETak bestalde, su-etena ezta ezta zuten Madril. Su-etenik ezin da egon sua piztuta dagoela.”

Datorren asterako... **Aita izateagatik 15 eguneko baimena hartzeko legea onartu dute.**

15 eguneko aitatasun baja nahikoa dela iruditzen al zaizu?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozei.com

[PROTAGONISTA]



Teodosia Iriando

Datorren apirilaren 2an 100 urte egingo ditu Teodosia Iriando elgoibartarrak. San Frantzisko kalean jaio-takoa da, lau anai arreba eta gurasoak bizi ziren. Egun, bera bakarrik bizi da. Alpargatagintzan egiten zuen lan gaztetan eta gero Madrilerara joan zen neskame. Hantxe ezagutu zuen gerora, bere senarra izango zena. Etxe berean zegoen lanean, ebanista zen. Ezkondu eta Madrilén bizi izan zen senarra hil arte. Gero, alabarekin etorri zen Elgoibarera. Bi biloba eta birbiloba mordoa dauzka. Bere egunean ospakizun bereza izango dute San Lazaro Egoitzan. Zorionak!

[NOTIZIA]

Ovidio Campello eta Unai Zulaika izango dira PSE-EE eta EB-Aralarren alkategaiak



Miguel Buen, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaiarekin batera, PSE-EE alderdiak Ovidio Campello aurkeztu zuen Udal Hauteskundeetarako alkategai moduan. Elgoibartarraren hirugarren legealdia izango da hau. Prentsaurrekoan azaldu zuten bezala, beraien nahia lau zinegotzi lortzea da. Hiru seguru aterako dituztela adierazi zuen Campellok. Beraien programaren barruan, herria egitea, herritarrengana gerturatzea eta udaletxe argi bat sortzea aipatu zituen besteak beste. Honekin batera, etxebizitzaren gaian, aurrekontuen %10a lurra erosteko erabilteza proposatzen du.

EB-Aralar koalizioa

Ezker Batua eta Aralar alderdiak koalizioan aurkeztuko dira datozen Udal Hauteskundeetan. Desberdintasunak alde batera utzita, elkarguneak topatu dituzte, "ezkerrak eraginkorra izan nahi badu, elkarlanean jardun behar duelako". Unai Zulaika EBko kidea izango da zerrendaburua eta Aralarren aldetik, Izaskun Sorraluze bigarrena. Zailtasunak izan dituzten arren, zerrenda ia itxita daukate, eta 15 elgoibartarrak dira. EB-Aralar koalizioak aldaketa proposatzen du gazteria, hirigintza, kultura eta abarrean, Elgoibar garbiagoa lortzeko, azken batean, "Elgoibar bizia".

asteko [ARGAZKIA]



Duela hilabete batzuk BARRENEN azaldu genuen alde zaharretan etxe batzuetan termitak zeudela. Egunra jaten ari ziren eta etxe batzuk nahiko egoera larrian zeuden, gainera. Gauzak horrela, bertako bizilagunek hartu dituzte intsektu mikroskopiko hauen kontrako neurriak eta aste honetan bertan hasi dira lanean. Errosario eta San Bartolome kaleko etxeak dira kaltetuenak. Bi kaleak lotzen dituen kalekatik hasita, Plaza Handiraino dauden etxeetan egingo dute lan. Argazkian ikusten dugun bezala, langileak fin ari dira.

2007ko helburuak eta egitasmoak onartu ditu Elgoibarko Izarrak



Elgoibarko Izarrak Bazkideen Urteko Batzar Orokorra egin zuen astelehenan, hilak 26, Kultur Etxean. 2006ko memoria aurkeztu eta onartu ondoren, 2007rako Elkarteak dituen helburu eta egitasmoak aurkeztu zituzten proiektuetako teknikariek, eta Batzar Orokorra onartu egin zituen. Helburuen artean, Elkartearen komunikazio plana aipatu zuten; Elkarteak egiten dituen ekintzen gaineko informazioa herritarren artean zabaltzea nahi dute. Atxutxiamaiak, Gaz-T eta Gurean-Bai proiektuekin batera, BARRE-Nek ere helburu inportanteak ditu

2007rako. Abenduan 15 urte beteko ditu astekariak eta ale berezi bat kaleratuko dugu. Bestalde, diseinu eta eduki berria ere prestatuko dugu eta, ondorioz, 2008an BARREN berriua izango dugu.

Zuzendaritza Batzordea

Amaitzeko Zuzendaritza Batzorderako kide berriak onartu zituen Batzarrak. Aurreantzean 8 lagunek osatuko dute. Lehengoak: Ane Zabala, presidentea, Gaizka Argarate, Ander Soraluze, Amaia Lariz eta Imanol Larrañaga. Berriak: Ibon Serrano, Leire Agirrebeña eta Maider Etxaniz.

[MOTZ-MOTZIAN]

Familia euskaldunetan egonaldiak

Programa honen bidez, euskara ikasi edo hobetu nahian, nahiz bertako euskalkia ezagutzeko asmotan dabilen pertsonari familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera emango zaio (uztailan, abuztuan edo irailean) eta, aldi berean, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko parada ere izango du. Familia bakoitzak 620 euro jasoko ditu hilean eta ikasleak 310 euro ordainduko ditu. Ekimen honetan parte hartu nahi duten familiek apirilaren 20a baino lehen eman beharko dute izena. Ikasleek berriz, maiatzaren 2tik 31ra. Informazio gehiago: familientzat, 943474447 (Olga), ikasleentzat, 944162472 edo www.egonaldiak.net helbidean.

Langabetuentzako ikastaroak

Elgoibar BH In titulatuak langabetuentzako bi ikastaro antolatu ditu. Bat Administarritza izango da, martxotik azarora, eta bestea Soldadurari buruzkoa, maiatzetik uztailean. Ikastaro hauek doakoak izango dira eta arratsaldean eskainiko dira. Interesatuak 943748019 telefonora deitu dezakete (Susana).

Atxutxiamaiaren Aste Santuko Ekintzak

Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak ekintza desberdinak antolatu ditu Aste Santurako. Apirilaren 2tik 4ra eta 10etik 13ra bitartean udaleku irekiak egingo dira Herri Eskolan 3-8 urte bitarteko umeentzat. Bestalde, Trikuhari taldeak "1,2,3...Inaxito" bertso emanaldia eskainiko du apirilaren 27an. Gaz-T Aisialdi taldearen eskutik udaleku itxiak izango dira DBH 1,2, 3 eta 4. mailakoentzat, apirilaren 10etik 14ra Zarauzko aterpetxean. Ekitaldi hauetan parte hartzeko interesa daukateneak, 943741626 telefonora deitu dezakete.

IMH Sariak banatu dira gaur eguerdian



Gaur eguerdian banatu dira IMH sariak. Ikasketa garaian eta baita ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren Heziketa Zikloetako ikasleei esker ona ematea da IMH Sarien helburua. Ikasle ohiaren saria lagoba Agirregomezkortak jaso du. 2000-2002 urteetan egin zuen heziketa zikloa, Goi-mailako proiektu mekanikoen garapenarekin eta Dikar enpresan egin zuen lanerako prestakuntza Kalitate sailean. Egun, Kooperatibak Kunshanen (Txinan) eraiki duen planta berriko gerente lanetan dihardu. Ikasle onenaren saria Gaizka Egurbiderentzat izan da eta aipamen berezia Jon Izagirrek jaso du.

Antonio (Andoni) Valdez sortzez Brasildarra da, Goias hirikoa, eta Mendaron bizi da, duela urte térdi ingurutik. Andoni ahalegin handia egiten ari da euskara ikasteko saiakeran eta dagoeneko, gure hizkuntzan ederki asko moldatzen dela erakutsi digu. Horren adierazgarri, berarekin izandako solasaldia euskara hutsean burutu dugu. Andonik bere bizitzaren eta esperientziaren ateak ireki dizkigu parez pare.

JALES ANTONIO ALVEZ MENDARON BIZI DEN BRASILDARRA

«Ez dut herriminik sentitzen, oso gustura bizi naiz hemen»



• Noiz etorri zinen estreinakoz Euskal Herrira?

2005eko udan Donostiara. Aldez aurretik, Kantabria ezagutzen nuen, nire anaia Santanderren bizi baita bere emaztearekin. Nire anaia izan zen Santanderrera joateko animatu ninduen. Ordura arte, Brasilen bizi nintzen gurasoekin. Baina, zorritzarrez, biak gaixotu ondoren, hil egin ziren. Momentu hartan, ez nintzen batere ongi sentitzen. Nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuenak izan zirenak galdu nituen. Horrela eta betidanik, European gertatzen denaren berri eta hemengo bizimodua zein heritarrek nolakoak diren jakiteko kuriositateak bultzaturik, Santanderrera bidaiatu nuen. Beranduago, Donostiara etorri nintzen anaiarekin eta astebete pasa genuen hemen.

• Nolatan iritsi zinen Mendarora?

Donostian igarotako denboran, Iñaki izeneko mutil euskaldun bat ezagutu nuen. Nik portugesa eta ingeles apur bat hitz egiten dut eta gaztelerarik ez dakit. Euskarazko hitz solte batzuk baino ez nekizkien Iñaki ezagutu nuenean. Zentzu honetan Iñakik laguntza handia eskaini dit. Pixkanaka joan naiz euskara ikasten. Gero, Iñakik Mendaro ezagutzeko gonbitea luzatu zidan eta beranduago, beraren gurasoak aurkeztu zizkidan. Gurasoak oso ondo hartu ninduten. Brasileraz itzuliko nintzen galdegin zidaten. Nik ez nekiela zer egingo nuen erantzun nien, oso pozik bainengoen Euskal Herrian. Berriekin bizitzen gertatzeko animatu ninduten. Oso jatorrak eta bihotz onekoak izan dira nirekin.



«Etxean,
Kortaberri
baserrian, dena
euskaraz hitz
egiten dugu»

• **Noiz jabetu zinen gure herrian bazela euskara hizkuntza?**

Donostiara etortzean, ohartu nintzen, Brasilen brasileiroa bezala, Euskal Herrian, bazela beste hizkuntza bat, euskara, alegia. Lehendabiziko aldiz, irratia piztu eta Euskadi Gaztea sintonizatu nuenean, Ken Zazpi musika taldeko abeslaria aditu nuen euskaraz kantuan eta izugarri polita iruditu zitzaidan. Egun, Ken Zazpi taldearen abesietako letrak ikasten dihardut eta dagoe-neko, zenbait abesti buruz dakizkit. MP3 bat daukat eta egunero, kolean, autobusean... entzuten joaten naiz. Musika lagungarria da hizkuntza bat ikasterako garaian.

• **Zaila al da euskara ikastea?**

Ez da hain zaila. Beste hizkuntza batzuekin alderatuz, (ingelese, frantseza...) zailtasun maila bera da. Hala ere, euskara ikasten ari garenontzat, praktika ezinbestekoa da. Ni hasiera batetik mintzatu izan naiz euskaraz; arestian, hitz solteak baziren ere: "kaixo", "egunon", "baita zuri ere"... Behin Bilbaora joan nintzen, denda batean sartu eta "kaixo, egunon" esanez agurtu nuen bertan zegoen dendaria. Neskak "nik ez dakit euskaraz"

erantzun zidan. Bilbao bezalako lekuetan zailagoa da euskaraz hitz egitea. Pasa den urtamilaren 6an ekin nion euskara ikasteari Elgoibarko euskaltegian. Nahiz eta denbora gutxi eduki horretarako, ahalegintzen naiz. Etxean ere, Kortaberri baserrian, dena euskaraz hitz egiten dugu. Horrez gain, egunero entzuten dut irratia euskaraz.

• **Nola oroitzen duzu zure ezkontza eguna?**

Oroitzapen ona gordetzen dut. Iragan den otsailaren 6an, Iñaki Kortaberria mendarorarekin ezkondu nintzen Mendaroko Udaletxean. Apur bat beldurtuta eta urduri nengoen, batik bat, Mendaroko herri txikia delako; Iñaki, ostera, lasai zegoen. Ezkondu ondorengo egunean eta kalera ateratzean, ordea, jende ugari zoriondu egin ninduen. Mendaroko herriaren harre-ra oso ona izan da. Oso pozik nago. Are gehiago, ez dut herriminik sentitzen ezta, nire sorteriko ezer faltan botatzen ere; hemen, oso gustura bizi naiz.

• **Momentu hauetan zertan diharduzu?**

Euskara ikasten ari naiz, hizkuntza ongi menperatu nahi baitut. Horrez gain, fresa-

dore eta tomero ikastaro bat burutzen ari naiz IMHn. Gisa berean, gida baimena ateratzeko asmoa dut. Bienbitartean, pasa den urtean eta aurtun, Itziarko nekazari kooperatiban (INECON) lanean dihardut. Kortaberri baserrian ere, pentsua prestatzen eta kamioia kargatzen laguntzen dut.

• **Zer gustatzen zaizu gehien Euskal Herriatik?**

Dena. Euskaldunak oso jatorrak dira, lagun girokoak oso. Gastronomia ere gustuko dut: txuletak, intxaurrak, sagardoa, porru patatak, pintxoak, ardoa pixka bat, sagardotegia... Musika ere bai, bertsolariak atsegin ditut, batik bat, Andoni Egaña erreferentzia bat da niretzat. Pasa den urtean BECen ospaturiko bertso txapelketa telebistan ikusi nuen. Bertsoak ulertzeko gai nintzen, bertsolariak astiro astiro abesten baitute. Musika taldeei dagokionez, Ken Zazpi eta Betagarri atsegin ditut. Azken honek, kanta azkarrak eduki arren, badakit abesti bat: "...hemengoa ez naiz eta ez daukat hemengo abizenak, baina, badago hemen beste hizkuntza bat eta ikasten ari naiz...".

«Iñakiren
gurasoek
oso ondo
hartu
ninduten»



GAUR ARRATSALDEAN ITZULIKO DA KIRIBIL PLAZA HANDIRA

BADATOR KIRIBILKA

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak 4. urtez jarraian jarri du martxan Kiribilka egitasmoa, Udalarekin elkarlanean. Gaur arratsaldean hasita, ekainaren 22ra arte luzatuko da programa. Guztira 8 saio egingo dituzte. Udako oporren ostean, saio gehiago egingo dira.



Elgoibarko familietan euskararen presentzia bultzatzea da Kiribilka egitasmoaren helburua. 2-6 urteko haurrei eta hauen gurasoei zuzenduta dago; euskara haur eta gurasoengana hurbilduko dute, modu ludiko, dinamiko eta erakargarrian. Gaur arratsaldean beraz, Kiribil eta bere lagunak Plaza Handian izango dira, arratsaldeko 17:30ean.

Aspaldiko eta betiko jolasak

Aurtengo Kiribilkarako aukeratu duten gaia "aspaldiko eta betiko jolasak" izan da. Gaur egungo haurrei, garai batean beraien aitona-amona edo agian baita beraien gurasoek ere nola jolasten zuten erakutsi, eta jolas hauekin ondo pasatzea posible dela ikustaraztea da antolatzaileen nahia. Ostiralero pertsonaia berri bat etorriko da Plaza Handira Kiribil bisitatzeraz, guztioi jolasak erakustera. Orain arte bezala jolasak, musika eta dantzak izango dira saioetan, eta haurrak eta hauen gurasoak euskaraz ongi pasatzea izango da helburu nagusia.

Ostiral arratsaldeetako saioez gain, kultur ikuskizunak ere izango dira. Udaberrian, maiatzaren 18an eta ekainaren 22an eta Elgoibarko Euskal Jaiaren Mendurrena dela-eta, Udalarekin elkarlanean saio berezi izango da ekainaren 15ean Kiribilkaren barruan.

EGITARAUA:

- Martxoa: 30
- Apirila: 13, 20, 27
- Maiatza: 4, 11, 18an Kultur ikuskizuna
- Ekaina: 1, 15, 22an Kultur ikuskizuna
- Iraila 14, 21ean Kultur ikuskizuna, 28
- Urria: 5

Oharra: euria eginez gero, saioa hurrengo ostiralera atzeratuko da.

[GOMENDIOA]



Estitxu Uribeetxebarria

AMALURRA FISIOTERAPIA

Fisioterapeuta

Hartu arnasa lasai (I)

Azterketak, laneko zeregin bukazezinak, edo hilabete amaierara iristeko egin beharreko akrobazia ekonomikoak direla-eta, itota bazabiltza, hartu amasa lasai! Amaren sabeletik iriteten garenean egiten dugun lehenbiziko gauza amasa hartzea da eta azken amasarekin batera iristen gara heriotzara. Beraz, amasa bizitzaren adierazgarri da. Nolako bizitza, halako arnasa, edo nolako amasa, halako bizitza.

Jaiotzen garenean eta haurtzaroan, orokorrean ongi amasten dugu, baina gerora, bizitzaren eritimo erogarrian sartzen garen heinean, gero eta kaotikoagoa bilakatzen da. Gorputzaren sentsazioetatik, gizarteak hala eskatuta, buruaren arrazionaltasunerako salto egiten dugu eta biriken goiko partea

soilik betetzen dugu airez, bular aldea puztuz eta gorputza alerta iraunkor batean ipiniz. Sartzen den airearen kalitatea garrantzitsua da, baina aire hori bameratzeko modua, beharbada, garrantzitsuagoa.

Itxi une batez begiak, eta jabetu zaitez: minutuko 12 bat aldiz egiten dugun mugimendu honen gorabeheraz. Airearen sudurretik sartzen den momentutik, kanpora atera arte biriketara berrituz egiten duen bidea jarraitu. Aire hori ahalik eta barruren eramatea izango da helburua. Amasketa diafragmatikoa deritza. Birikak betetzean beherantz jaisten da, bertan dauden organo guztiak presionatuz eta hauen funtzionamendua ziurtatuz. Birikak hustean ordea, gorantz joaten da, presioa txikituz.

[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Naturhouse

Dietetika eta nutrizioa

San Frantzisko, 26 943 74 10 78

Ordutegia: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsalde)

Jausoro, 6 behe

Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsalde.

San Frantzisko, 58 behe (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala,

prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95


Astelehenerik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

J.M. MAKAZAGA ELGOIBARKO EUSKERIA LIBURUAREN EGILEA

«Gure aittitta-amamen hizkeria ahalik eta era fidelenian jasota lagatzia da helburua»

*Jesus Mari Makazaga Euskal filologo eta EHUko irakasleak Elgoibarko euskeriari buruzko liburua idatzi du. Gazte-
xoek akaso ez dozue ezagutuko, baina Elgoibarrek badauka bere euskera propiua eta horren ezaugarri eta berezita-
sunak jaso ditu Makazagak lan honetan. 1999. urtian eman zittuan liburu hau sortzeko lehenengo pausuak eta aste
honetan bertan atera da klaera. Martitzenian egin zaban liburuan aurkezpena Kultur Etxian eta guk berakin berba egi-
tteko aprobetxau dogu, nola ez, elgoibartarrez.*



► Nolatan hasi ziñan Elgoibarko euskeria aztertzen?

Aspaldi samarretik naukan buruan holako lan bat egittia; Elgoibarko Izarrak ere ikusi zaban ezinbestekua zala lan honi heltzia (proiektu orokorrago baten lehen urrats bezela), eta ados jarri giñan bixok Gure aittitta-amamen hizkeria ahalik eta era fidelenian eta osuenian jasota lagatzia da helburua.

► Zer jaso dozu liburuan?

Hizkuntzaren alor guztixak landu dittut, gehixago edo gitxiago: fonologia, morfologia (deklinabidia eta aditza), sintaxia eta hiztegia. Irakurgai eta entzungai batzuk ere bai. Bai eta lagunarteko hizkera adierazgarria errezteko ezinbestekuak ikusten dittudan esakerak, esamoldiak, lokuziuak, interjekziuak... 30 bat berri-emaille erabilli doguz. Bakoitzari egin jakozen hasieran bi elkarrizketa mota: bata irkixa eta bestia lotua. Gero, hórretako batzuekin bakarrik jarraitu dot, bigarren maillako elkarrizketa lotuen bidez, zalantzak argitzen.

► Zein dira Elgoibarko euskeria ezaugarri garrantzitsuenak?

Nahasketia da nire ustez ezaugarririk nabarmenena; bizkaieraren gauza asko daukaz, baiña batzuetan ez inguruko beste herri batzuk (Eibarrek, Soraluzekek) dauken indarrakin, edo hárek bezain garbi; aditza, esate baterako, bizkaierakua da gehixena, baiña badittu Gipuzkeraren ikutu batzuk. Hiztegiaren nabaritzen da, esango nuke, Gipuzkeraren eragin haundixa. Bi euskalkiren arteko zubihizkeratzen hartzen dau Koldo Zuazok bere azken lanetan, eta ni ados nago ondorio hórretan: Bizkaierari nahiko lotuta dago, baiña badittu gero eta Gipuzkeraren ezaugarri gehixago.

► Zenbat denbora eman dozu liburu hau prestatzen?

1999 urtiaren amaieran eman genduzen lehendabiziko pausuak. Gogor-gogorra, berez ez da izan: gaixaz



Kultur Etxeko hitzaldi gela txiki geratu zen "Elgoibarko euskaria" libururen aurkezpenean. Liburu asko sinatu zituen J. M. Makazagak.

kanpoko arrazoi batzuk izan dira kontua luzatu debena. Lana amaitzeko goguari eustia izan da gogorrena, hainbeste denporaren ostian.

► **Gustura gelditu zera emaitzarekin?**

"Orokorrian" (gaur egun pedante samar) esaten dan bezela, bai. Aldaketak beti egongo dira (hasitta nago gauza batzuk gehixago eta beste era batera lantzen), baiña horrek ez dau esan nahi libururekin lotsatzen naizenik. Oin lan hau sakondu, eta doktorego tesi moduan aurkeztekotan naiz.

► **Zenbat jendek lagundu dizu lan honetan?**

Era batera edo bestera, jende asko egon da lanari lotuta: Elgoibarko Izarrak (Imanol Larrañaga, Iñasio Garmendia, Beñat Bilbao, Ane Zabala; Ibon Arriola, Ainhoa Lodoso eta Irune Iriondo lanaren hasierako laguntzaile nekazeziñak; Asier Orbea argazkixekin...), Udalekuak (Euskara batzordia eta Euskara zerbitzua), berri-emaille mordo bat, oin dala pare bat urte eman nittuan ikastaruetara etorri zan jendia, lagun dittudan irakasle batzuk, liburua eta diskua prestatzen ibili diran Belen, Iñigo Astigarraga eta Naiara Errasti, etxeak...

► **Elgoibarko gaztiekin ba al dakixe elgoibartarrez hitz egiten?**

Badakixe, bai. Nola ez, ba! Kontua da aldatuz dixela "elgoibartarra" izatiaren kontzeptua, hizkuntzia bera aldatuz dixen bezela. Ez da gauza bera oin dala 40 urteko elgoibartarra eta gaur egunekua; ez

da gauza bera gaur egungo basarritar gazte baten elgoibartarra eta adin bereko kaletar batena. Danak dira, baiña, elgoibartarra. Zer izango da bestela? euskera batua ez bada behintzat!

«Basarrietan hobeto gorde dira kalia galdu diran ezaugarri asko»

► **Basarrietan ala kalia erabiltzen da gehixago?**

Bixetan erabiltzen da. Kontua da basarrietan hobeto gorde dirala kalia galdu diran ezaugarri asko. Hikako aditz-formak dira adibide nabarmenetako bat. Baiña hori beti gertatu izan da: aldaketak, beti datoz kaletik; basarrixa izan da beti kalia baiña kontserbatzailliagua. Sasoi bateko basarritar batzuek ere gogor keizatzen ziran kaletarrak [eitxia] ahoskatzen zabelako, eta ez [eititia]. Edota ekarri zi(d)an esaten zebelako, ekarri ninddunen ordez.

► **Galtzeko arriskurik ikusten al dozu?**

Erabat galtzeko arriskurik ez diot ikusten; hori bai, liburuan jaso dittudan eza-

gari eta egitura asko eta asko desagertu egingo dira. Liburuan behin eta berriz esaten dot halako forma edo ezaugarri indargalduta dauala gaztien artian. Denporiarekin hórretako asko galdu egingo dira. Baiña horrek ez dau esan nahiko euskeraz egiñ ezingo dogunik; beste era bateko euskaria izango da; homogenua, esan baleike: gero eta desberdintasun gitxixago egongo dira herrixetako hizkeren artian.

► **Zer egin leike kalia Elgoibarko euskaria zabalteko?**

Nik oso ontzat ematen dot Elgoibarko Izarra eta Udala euskeriaren erabilleran egitten ari diran lana. Ez dauke lantegi makala, gero! Erderiaren presia oso-oso haundixa da-eta. Jendia erakartzen ahalginduko nitzake eukerara, gaztiak eta erdalduak: hizkera erabilgarria eskaiñi gaztieri, euskaria "rollo" bat izan biharrian gauza dibertigarria izan leikela erakutsi, euskeriarekin jolastu leikela erakutsi, gramatika-ariketa lehorrak bakarrik eskaiñi biharrian, euskaria euskera batuarekin amaitzen ez dala behin betiko sinistu, gaztieri eta umieri ematen dieguna baiño ejemplo hobia eman, euskaria alderdikixetatik babestu (ez da iñona; edo, hobeto esanda, danona da. Norbere alderdikariko bakarrik nahi badogu euskaria, zeren izenian eskatuko diogu gero etsai politikuari euskaria erabili deigan?), katalaneri pixka bat gehixago begiratu; han, PPKuek ere normal-normal egitten debe katalanez.

VI. AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA

Dantzari elgoibartarrak jaun eta jabe izan ziren nesken mailan



Pasa den astebukaeran, Elgoibarren jokatu zen VI. Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketan gure herriko dantzariak euren nagusitasuna erakutsi zuten oholiza gainean.

Nesken mailan eta A sailean (11-15 urte bitartekoak) txapelduna, Maria Ferreiro elgoibartarra izan zen. Bigarren postuan, berriz, Idoia Basarte lezotarra sailkatu zen eta hirugarren saria, Amaia Astigarra elgoibartarrantzat izan zen. Guztira 23 dantzari hartu zuten parte maila honetan eta "Eribera" Soinu Zaharra eta "Saltokako Zortikoa" doinuak defenditu

behar izan zituzten. Gainerako elgoibartarren lorpenak honakoak izan ziren aipaturiko kategorian: Ainhoa Agirre (8), Arantxa Ferreira (9), Itziar Aldalur (5) eta Nerea Badiola (12). Era berean, adierazi, Jon Lizarralderi eman zitzaiola, lehenengo dantzariaren irakasleari merezitako saria, eta Elgoibarko dantzari onenaren saria berriz, Maria Ferreiroren eskuetara joan zen.

B mailara jauzi eginaz, azpimarratu, elgoibartarrak jaun eta jabe izan zirela podiumean: lehenengo postuan Ane Espilla sailkatu zen txapela eskuratuz. Bigarren, Iraitz Gonzalez eta hirugarren, Nerea

Perez. Maila honetan, 27 dantzari "Ormatxulo Soinu Zaharra" eta "Agurra" dantzatu zituzten. Kategoria honetan, dantzari hoberenaren saria, Ane Espillak eskuratu zuen.

B sailean eta mutilei dagokionez, guztira 12 dantzari lehiatu ziren "Abarkeitak" eta "Agurra" doinuekin. Oiertzun aldeira joan zen txapela, Eneko Iparragirre izan zen garailea. Halaber, Aitor Asenjo elgoibartarra 4. sailkatu zen eta Elgoibarko dantzari hoberenaren sari berezia jaso zuen. Imanol Iturrino, bestalde, 9. postuan sailkatu zen.

Elgoibarren Euskal Jaien mendeurrena gogorarazteko ekitaldi ugari antolatu dira



Aurtengoan gure herrian Euskal Jaiak ospatu zireneko mendeurrena beteko da. Hori dela-eta, Udalak, Euskara eta Gazteria sailen eta Kirol Patronatuaren bidez, egitarau zabal bat prestatu du, gure herriko euskalgintzan eta kulturgintzan esanguratsuak diren eragile eta elkarrekin batera.

Elgoibarren 1907. urteko uztaillean, astebez hainbat ekintza antolatu ziren Euskal Jaien baitan. Hori horrela, duela mende bateko egitaraua orotarazteko eta garai hartako helburuari eutsiz, hau da, euskal hizkuntza eta kultura indartzeko xedea aintzat hartuz, egitarau berezi bat antolatu da. Gabonetan eman zitzaion hasie-

ra, Udaleko Euskara Sailak urtero argitaratzen duen egutegi eta postalen bitartez. Urtarrilean Filatelia elkarteak ere, bere ekarpena egin zuen. Otsailean Euskal Jaietarako logotipoa aukeratzeko lehiaketa egin zen eta iragan den astebukaeran, "Aurresku eta Soinu Zahar" txapelketa ospatu zen. Ekitaldiak uztailean arte luzatuko badira ere, ekintzarik gehienak maiatza eta ekainean egingo dira.

Maiatzera begira, honatx antolaturiko egitaraua: eskoletako umeen bertso jaialdia, "Lamien basoa" haurrentzako dantza ikuskizuna, baseritar jantzi buruzko Ane Albisuren ikastaroa, Oskorri & The Pub Ibiltariaren 11. kontzertua eta "Agian" filma.

MENDIZALETASUNA

Udaberri honetan 6 mendi emanaldi proiektatuko dira Musika Eskolan

Morkaiko M.E.ak eta Elgoibarko Kirol Patronatuak antolatuturik, apirilaren 11tik aurrera, asteazkenero, 6 astez jarraian, mendi emanaldiez gozatze-ko aukera izango da Musika Eskolan. Saio hauek, iluntzeko 21:30etik aurrera eskainiko dira eskarmentu handiko mendizaleen eskutik. Apirilaren 11n, aurreneko proiektzioa egingo da: "Zelanda Berria" du izena emanaldiak eta Jose Ramon Agirre izango da hizlaria. Ikus-entzunezko honen bidez, naturaren indarra erakutsi nahi da, eta jakina, horrekin batera, egileak Hegoaldeko Uharteko Cook mendiaren (3.755 m) igoeran izandako esperientzia azalduko du.

Gainerako emanaldiak

Apirilaren 18an, Aritza Monasterio "Siude Grande: Noches de Juerga" filma; apiri-



laren 25ean, Benantzio Irureta: "Sakana Pumorri espedizioa"; maiatzaren 2an, Aritza Monasterio, "Andinismo Vertiginoso: Del Chacararaju al Rondoy"; maiatzaren 9an, Joseba Elustondo, "Nun Mendia" eta maiatzaren 16an, "Mont Blanc 2006: 4 Bide Euskal Herriko Emakumeentzat".

Lojantzi nesken taldea 2. sailkatu da eta igoera fasea jokatuko du



Eskubaloiko Lojantzi senior nesken taldea bigarren sailkatu da aurtengo Euskadiko Eskubaloi Liga txapelketan eta igoera fasea jokatuko du apirilaren azken astean. Maila bereko mutilei dagokionez, esan, Tecnifuellek igande honetan partida garrantzitsuari aurre egin beharko diola Bilbon. Irabazi ezker, lehenengo postuan sailkatuko lirateke senior mutilak eta gogorazi, igoera fasea ere jokatuko dutela maiatzaren 4, 5 eta 6an.

Garazi Osoro Gipuzkoako txapeldun froga konbinatuetan

Garazi Osoro 11 urteko atleta elgoibartarra, Gipuzkoako txapeldun izan zen pasa den astean, Lasarten jokatutako proba konbinatuen kategorian. Proba guzietako puntuazioak batuta, emaitzarik handiena lortu zuen: luzera proban, 2. postuan sailkatu zen, 60 metro lisotan, bigarren baita ere, eta pisu jaurtiketan lehendabiziko postua eskuratu zuen.



[EMAITZAK]

FUTBOLA

Arenas 0 - Haundi 0
Elgoibar 1 - Pedrusco 2 (erreg.)
Elgoibar 6 - Martutene 2 (jub.)
Amara Berri 3 - Elgoibar 1 (kad.)
Elgoibar 2 - Aloña Mendi 0 (O. Inf.)
Zarautz 0 - Elgoibar 3 (inf. txiki)
Arizmendi 6 - Elgoibar 0 (nesk.)
Elgoibar 0 - Urko 4 (aleb.)

ARETO FUTBOLA

Kenci 1 - Grupo Ikusnet 3 (Euskal Liga)
Euromar Kafetegia 7 - Kenci 1 (2.mail. gipuzk.)
Relojes Mondaine 1 - Zarautz 5 (jub.)
Elgoibar 5 - Egintza 2 (jub.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak 22 - Bergara 5 (1.mail. nagus.)

Debaroko Txapelketa

Bergara 7 - Lagunak 22 (nagus.)

Bergara 22 - Lagunak 16 (jub.)

Lagunak 2 - Aretxabaleta 22 (kad.)

ESKUBALOI

H. txarriduna 22 - Xurumuru 24 (Inf. mutil.)

H. txarriduna 21 - Lezo 23

Tecnifuelle 31 - Donibane 11 (Sen. mutil.)

Zarautz 19 - Aterpe 22 (Inf. nesk.)

Tecnomec A 33 - Urdaneta 27 (kad. mutil.)

Pneumax 29 - Urdaneta 21 (jub. mutil.)

Groseto 14 - IMH 11 (Kad. nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapata, 31

11:00 Elgoibar - Umieta (kad.)

16:30 Haundi - Real Union

Domakia, 1

12:00 Elgoibar - Real Union (Inf. txiki)

ESKU PILOTA Ikastolako Frontoian

Martitena, 3 (apirilak)

19:00 Lagunak - Eibar (jub.)

Lagunak - Aretxabaleta (nagus.)

Lagunak - Ozkarbi (nagus.)

ESKUBALOI Kirodegian

Zapata, 31

17:00 Aterpe - Bergara (Inf. nesk.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Pisu salgai Zumaian. Egoera onean. 2 logela, komuna, sukalde, egongela. Bista ederrak. Dena kanpora. Erdialdean. Itzurun hondartzatik 500 metrora. 280.000 euro. ☎ **943537271**

▶ Pisu salgai Zumaian. Berritua. 2 logela. Itzurun hondartzatik 2 minutura. Jantzigela handia. Egongela. Bista ederrak. Sukaldea maila goreneko materialarekin. ☎ **943535214**

▶ Altzolan etxe ia berria salgai. 3 logela, bi komun, egongela-jiangela. Garaje itxia eta trasteleku. ☎ **650243359**

▶ Etxea salgai San Roken. Eguzkitsua, erabat berritua. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun eta arropa esekileku. Garajea eta ganbara. ☎ **943740194**

▶ Duplex-a salgai Artetxe kalean. 4 logela, sukalde, egongela, bainugela. Eguzkitsua. ☎ **696266982**

ALOKAIRUA

▶ Adineko emakumeak pisu txikia hartuko luke alokairuan. ☎ **659399824**

▶ Elgoibar edo inguruan logela bat hartuko nuke alokairuan. ☎ **667733671 (Arrate)**

▶ Logela bat alokatzen dut. ☎ **943741881/635206436**

▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **695788742**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garaje marraduna salgai Ikastola ondoan. Estalia. ☎ **943743578**

▶ Garaje marraduna alokatzen sa San Roke kalean. ☎ **943741436**

▶ Garaje itxia alokatzen dut Urasandi eta Madala artean. ☎ **659141232 (17:00-20:00)**

[BESTELAKOAK]

▶ Mutrikun txalupa salgai. 4,09x1,63. Puntala 0,70m, 1.300kg. Diter motorra, 9 zaldi. Fibrazko kaskoa, ur hustuketa berez egiten du. 4.000 euro. ☎ **665728662**

▶ Ordenagailu portatila salgai. 1.7GHz centrino, 1.6DDR, 80G disko gogorra. Egoera onean. ☎ **646160480**

▶ Bigarren eskuko aukialki salgai. ☎ **620810120**

▶ Hozkailua, arropa garbigailua salgai (Opsen kontsumo bajukoa), mikrouhina (Linea). 500 euro. Mendiko bizikleta oparitzen dut. ☎ **666148037**

▶ Lursaila salgai Eibarren. 22.500m². 16 urteko pinuarekin. ☎ **943033503**

▶ Lasturren baserria salgai, terreno eta guzti. 10 hektarea. ☎ **943740037/605741485**

▶ Ortu konpartituko genuke. Ura, zimaurre eta lanerako tresnak ditugu. Herriitik gertu. ☎ **655723678**

▶ Edergintza bateko makina eta tresnak salgai. 2 ohatila, sauna, solarium, esterilizadorea eta Sorisa etxeko 2 mahai. ☎ **676686758/943743959**

▶ Intel ordenagailua salgai. 2.6 GHz, 512 Mb RAM, 40 Gb disko gogorra, DVD grabagailua, modem, 17"-ko pantaila, eskanerra, TV txartela. 250 euro. ☎ **943742291**

▶ Telebista salgai. 28", 100 hertzio. Panasonic, pantaila lava, ipurdiarekin. 250 euro. Gutxi erabilia. ☎ **636257546**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakumea ostalaritzan edo garbiketara lanerako prest. ☎ **666032715**

• Neska garbiketara lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. ☎ **638527915**

• Bi gizon igeltsero, garbitzaile, zaintzaile lanetarako prest. ☎ **638494501**

• Emakume euskalduna gaixoak zaintzeko prest arratsaldez edo gauetz. ☎ **626428248**

• Esperientziadun emakumea umeak, nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **638515953**

• Mutil gaztea nagusiak zaindu edo garbiketara lanetarako prest. ☎ **638515953**

• Emakume elgoibartarra garbiketarako prest. ☎ **699717008**

• 50 urteko emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **648842509**

• Emakumea garbiketara lanak egin, nagusiak, umeak zaindu sukaldari... ☎ **654604798**

• Emakumea garbiketara lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **667709439**

• Emakumea lanerako prest. ☎ **671343612**

• Neska nagusiak edo umeak zaindu, garbiketara lanak egin... ☎ **617056828 (Lili)**

• Neska nagusiak edo umeak zaindu, garbiketara lanak egin... ☎ **666273122 (Marlene)**

• Neska lanerako prest. ☎ **638520765**

• Mutila igeltsero edo pintore laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketara lanetarako prest. ☎ **650813847**

• Neska umeak edo nagusiak zaindu, edo garbiketara lanetarako prest. ☎ **650813847**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ **660511781/943742330**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako prest. Gida baimenarekin. ☎ **628613143**

• Emakumea umeak, nagusiak zaindu, garbiketara, kamarera... ☎ **638527915**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako prest. ☎ **671476869**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako prest. ☎ **610632782**

• Neska garbiketara egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **649368137**

• Neska lanerako prest. ☎ **626767586**

• Emakumea lanerako prest. ☎ **663569263**

ESKAINITZA

• Elgoibar Ikastolak HH 1. eta 2. ziklorako, LH eta DBHrako irakasle poltsa osatzeko kurrikulumak behar ditu. ☎ **943744441**

• Igeltseritza enpresak esperientziadun mutila behar du. ☎ **605705204**

• Jatetxerako kamarera behar da. ☎ **943 121262**

• Kamareroa behar da tabernan lan egiteko. ☎ **943743196**

• Eibarko enpresa batek I+D+In lan egiteko ingeniari tekniko industrialak behar du. Bi urteko esperientziarekin. CV. 263 postakutxilara bidali. ☎ **943121608.**

• Eibarko enpresa batek ingeniari elektronikoa behar du. ☎ **943121608.**

• Eibarko enpresa batek makina berezien montadore mekanikoa behar du. ☎ **943121608.**

• Adineko emakumea zaintzeko neska behar da. Atzeritarra ez izatea. ☎ **676894367**

• Asteburuetarako kamareroa behar da. ☎ **670250429**

• Larunbatetan tabernan lan egiteko neska behar da. ☎ **670654921**

• Egur Arte Tailerlean margo artistikoko klaseak emateko pertsona behar da. (Aita Agirre Plaza z/g 2. pisua. 18:00-20:00)

ABISUAK

• Korrika egunean argazki kamera funda aurkitu nuen memoria txartelarekin. Udaltzaingora eramanez. ☎ **943743965 (Pedro)**

• San Lorentzon, Antxola baserri inguruan Colie arrazako txakur emea azaldu da. ☎ **943351097**

• Udaletxe atzean belarritakoa galdu nuen hilaren 25ean. Hari berde eta zuriekin. ☎ **943351097**

• Lehenengo Batxilergoko klaseak hartuko nituzke. ☎ **627104915**

• Txanodun txamarrak berdea galdu nuen King-Kong eta Aterpe artean martxoaren 12an. ☎ **652738043**

• Perikito berde bat aurkitu dut Upai-Zaharra inguruan. ☎ **943740420**

• Hozkailu bat hartuko genuke lokalerako. ☎ **627104915**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Julen** atzo 4 urte egin zenituelako. Etxekoan eta bereziki, Danelen partez.



▶ Zorionak amama zure 100. urtebetetzean. Familiakoan, bereziki, Alberto, Maialen eta Iñigoren partez.



▶ Zorionak **Nahial** gure pitusina, urte bat beteko duzulako apirilaren 4an. Familiakoan partez mila muxu!



▶ Zorionak **Oier** hilaren 28an 10 urte egingo dituzulako. Familiakoak eta anaia Julenen partez muxu bat.



▶ Zorionak **Leirel** Gure sorgintxoak urte bat egingo dau. Patxo bat danon partez. Kandelía Oier eta Unaik emendauko dabe.



▶ Zorionak **Asier** apirilaren 1ean 5 urte egingo dituzulako. Muxu bat guraso, Maialen eta aiton-amonen partez. Txintxoa izan.



▶ Zorionak **June** zure 5. urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoan partez.



▶ Zorionak **Julene** hilaren 29an 9 urte egin zenituelako. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Esteban!** Zure lankideen partez ondo jarraitu eta disfratáu!



▶ Zorionak **Jon** gaur 8 urte egin dituzulako. amiliakoan partez. Ondo pasau!



▶ Zorionak maitasunaren doktore **Felix Urizar!** Koadrilakoan partez.



▶ Zorionak eta muxu handi bat **Ibairi** bere urtebetetzean. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **bikote!** Zuetaz ahaztu ginelakoan? Familixako guztien partez. Segi horrela!

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Bulkatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

karkizano
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43



[OKINDEGIA]

- 1 igandea FOTERO
- 5 osteguna IBARRENEA
- 6 ostirala BOLINTXO
- 7 larunbata DOÑA MERCEDES
- 8 igandea EIZAGIRRE
- 9 astelehena FOTERO



[FARMAZIAK]

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> 31 Fernandez (* Goizez Bidasola) 1 Fernandez 2 Yudego 3 Zabaleta 4 Etxeberria (Errosario) 5 Etxeberria (Errosario) 6 Etxeberria (Errosario) | <p>GUARDIA 24 ORDUZ</p> <ul style="list-style-type: none"> 7 Etxeberria (Santa Ana) 8 Etxeberria (Santa Ana) 9 Etxeberria (Santa Ana) 10 Yudego 11 Zabaleta 12 Etxeberria (Errosario) 13 Ibañez |
|---|---|

- KANPOKO FARMAZIAK**
IBÁÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42
ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

[ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK]

	Hilak 1 Erramo Igandea	Hilak 2 Astelehena	Hilak 3 Asteartea	Hilak 5 Ostegun Santua	Hilak 6 Ostiral Santua	Hilak 7 Pazko gaubela	Hilak 8 Pazko Igandea
PARROKIAN	10:30 Meza. 12:00 Erramuen bedeinkape- na, prozesioa eta meza.	20:00 Adiskidetze ospakizunak (Euskaraz)	20:00 Adiskidetze ospakizunak (Gaztelaniaz)	10:00/12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurrean otoitza	18:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna	21:00 Bazko gaubela	10:30 Meza eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak
SANTA KLARAN	9:30 Erramuen bedeinkapena eta meza.			17:00 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurrean otoitza	9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz bidea 17:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna	22:00 Bazko gaubela	9:30 Meza
MADALAN	9:00 Erramuen bedeinkapena eta meza.			17:30 (San Lazaro egoitzan)	10:30 Gurutz bidea		9:00 Meza
SAN LORENTZO	10:30 Bedeinkapena eta Hitzaren liturgia.	20:00 Adiskidetze ospakizunak		18:30 Azken afariko ospakizuna	19:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna		10:30 Meza
SAN ANTOLIN	11:30 Bedeinkapena eta hitzaren liturgia.	19:30 Adiskidetze ospakizunak					11:30 Hitzaren liturgia.
SAN PEDRO	10:30 Bedeinkapena eta meza.						10:30 Hitzaren liturgia.
SAN MIGEL	11:30 Bedeinkapena eta hitzaren liturgia.						11:30 Hitzaren liturgia.

[30 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA
2 urtetik 6 urtera bitartekoentzat
Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

22:00 KOELLO 104 TALDEAREN DISKO BERRIAREN AURKEZPENA
"Odola" diskoa aurkeztuko dute
Lerun Txikiko etxe okupatuan

[31 ZAPATUA]

10:00 XXVII. ELGOIBARKO HIRIA TXIRRINDULARI SARIA

Jubenil mailakoentzat
Irteera: Plaza Handitik
Helmuga: Santa Klara kalean
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

11:00 UDABERRI FESTA
Plaza Handian

HHko eta LH 1eko eta 2ko ikasleentzat

Antolatzailea: Atxutxiamaiika

12:30 ASANBLADA IREKIA
Gazte martxari buruz berba egiteko asanblada edo bilera irekia
Gaztetxean

16:00 BADATOR EUSKAL HERRI BERRIA AUTOBUSAK

Nazio ekitaldia burutuko du ezker abertzaleak BEC-en "Badator euskal herri berria" lemapean. Elgoibarko ezker abertzaleak autobusak antolatu ditu: Irteera: Plaza Handitik

17:00 GIPUZKOAKO HIRU TXIRLO BOLO TXAPELKETA

Aiastia-San Migel auzoko bolatokian

21:00 BARRIKOTEA

Kimetz Elkartearen Sagardoa txotxetik, bertsolariak... Sagardotegietako menua
Prezioa: 18 euro

[11 EGUAZTENA]

21:30 ZEELANDA BERRIA IKUSENTZUNEZKOA

Hizlaria: Jose Ramon Agirre "Marron"
Antolatzailea: Morkaiko
Musika Eskolako Auditorioan

[13 BARIXAKUA]

22:15 ANTZERKIA

"Picaso 1937, historia del Guernica"
Taldea: Maskarada Antzerki Taldea
Herriko Antzokian

Sarrerak aurrez salgai: goizez, Kultura Sailean; arratsalde, Gazte Informazio Bulegoan

19:00 "MUNDU BETE KOLORE" ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Angel Cuervo bidaiari tolosarraren bidaietako argazkiak
Kultur Etxeko erakusketaren gelan
Apirilaren 29ra arte
Antolatzailea: Kutzaren Gizarte-Ekintza

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIAN

«Babel»

30, barixakua: 22:15
31, zapatua: 19:30-22:15
1, domekia: 19:30-22:15
2, astelehena: 21:30

«Betizu eta Xangaduko misterioa»

1, domekia: 16:30

«Noche en el museo»

5, eguena: 19:30-22:15
6, barixakua: 22:15
8, domekia: 16:30

«Juegos secretos»

7, zapatua: 19:30-22:15
8, domekia: 19:30-22:15
9, astelehena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Descubriendo a los Robinsons»

30, barixakua: 19:30-22:15
31, zapatua: 17:00-19:30-22:15
1, domekia: 17:00-19:30-22:15
2, astelehena: 19:30-22:15
3, martitzena: 19:30-22:15
4, eguaztana: 19:30-22:15

BARRENez ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Babel»



Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Iñarritu
Antzezleak: Brad Pitt, Cate Blanchett, Gael García.
Marokoko desertuan entzungo den tiro hots bat da istorio hainbat adar dituen istorio koral honen abiapuntua. Bizirauteko borrokan ari den bikote estatu-batuar bat, nahigabe tiroa bota duten bi gazte marokoar, Amerikako Estatu Batuetako muga legez kanpo pasa nahi duen umezain bat eta neska japoniar bat dira "Babel" filma globalizatuko protagonistak. Distantzian eta kulturalki bata bestearengandik oso urrun egon arren, bakardadea eta samina ezagutuko dituzte denek.

«Noche en el museo»

Zuzendaria: Shawn Levy.
Antzezleak: Ben Stiller, Carla Gugino.
Sekula amestu al duzue museo batean zaudetela bertako animalia disekatuek eta giza irudiek bizia hartuko balute zer gertatuko litzatekeen? Ba hauxe da gau bat museoan filmaren argumentuaren muina. Shawn Levy zuzendariak dioenez, "guttariko askok eduki dute estatua baten ondotik pasatzerakoan begiradarekin jarraitzen gintuen sentzazioa, ezta ala? Eta egia izando balitz, bizirik baleude, Zer gertatuko litzateke?"

Atzera hegira



1977. urte inguruko erretratu zahar hau **Igor Mugerzak** laga digu. Aste Santua gainean daukagu, eta domeka honetan Erramu Eguna ospatuko denez, egokia iruditu zaigu argazki hau kaleratzea. Argazkian ikusten den bezala, lehen ere egiten zen erromeria egun honetan. Dotore ikusten ditugu ume hauek San Klarako komentua atarian. Asto eta guzti egin zuten urte hartan erromeria. Gogora ditzagun zein diren argazkian agertzen diren mutiko gazte hauek. Ezkerretik eskumara: **Iñaki Noguero, Jon Gorrii, Jon epelde (†), J.M. Calles, Laurentzi Gorostiza, Xabier Arakistain (asto gainean), Iñaki Egaña "Agarre", Pako Perez, Carlos Iriondo, David del Estal, J.L. Marin, Alberto Iriondo eta Igor Mugerza.**



ESKERTZA

2007ko martxoaren 21ean, 83 urte zituela hil zen **Santiago Toledano Toledano**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Ferpi



ARROPA KONPONKETA



Era guztietako konponketak:

- Galtza- barrenak
- Estutu
- Zabaldu
- Kremaierak

Espezialistak:

- Iletaruzko, laruzko eta antezko arropen konponketetan

%10eko beherapenak larru eta antezko arropen konponketetan.

Martxoaren 30etik apirilaren 15era

San Bartolome, 3

Tel.: 943 74 38 85

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

Picasso 1937

HISTORIA DEL GUERNICA

Apirilak 13

22:15

Herriko Antzokia

Maskarada



Txitxarra ta inurria

ANTZERKIA



Apirilak 15

16:30

Herriko Antzokia

markeliñe

